

**2000 2010**  
HAMAR URTEZ ERTZ



## Entzuten Entzun


Xabier Erkizia

1.- "Ecoute, Une Histoire De Nos Oreilles" Editions De Minuit 2000

Peter Szendy sutsuki defendatzen du bere "Entzumena"<sup>1</sup> liburuan badela entzuten entzuterik. Norberak entzuten duena bertze norbaiti entzunarazterakoan sortzen den erlazio bitxia azaldu

nahieran, Szendy seguraski ez soilik musikari baizik musikazale eta entzule orok bizi izan dugun esperientzia izan arren gutxitan kon-tutan hartzen dugun sentipen amankomun hori izendatu nahi izan du. Ez da lan makala halako pentsakerak eta sentimendua azaltzea, are gehiago soinuari edo entzumenari buruz solasterakoan, ukiezin eta pisaturezin diren heinean zaila baita inolako neurketa edo azterketa zehatzik egitea. Bainan hala izanik ere, zalantzarak gabe musika sortzeak eta entzuteak suposatzen duen abentura zirraragarri horretan gehien gozatzen dugun esperientzia horietako da entzuten entzutearren hori. Zer da bertzela norberak gustura entzuten duena bertze norbaitekin partekatzea, konpartitzea baina gozagarriago? Eta nork ez du sentitu norberak gozatzen duen soinu edo musika bat bertze norbaiti azaltzen saiatzerakoan sortzen den ilusio eta kontraerran zaparrada hori?

• Modu batera edo bertzera, entzuten entzutera jartzen garenan bada beti azalera agertzen den egi bat, oinarrizko bezain polemikoa izan daitekena musika zer den erakutsi digutenentzako, baina inork ukatu ezin duena: Ez dago bi entzuteko modu berdin. Musikaren historiatzaileek behin eta berriz kontrakoa erran badigute ere, edo behintzat entzuteko modu jakin bat zehazten saiatu bazaizkigu ere, ez da posible ez lau, hiru ezta bi belarrik ere (beraz pentsa hortik goiti) guztiz berdin entzuterik. Eta horrelako baieztapena botatzerakoan ez gara soilik gure entzumen sistemak izan ditzazkeen arazoei, akatsei edo oinazeei buruz ari, baizik joanetorrian dabiltsan milioika erresonantzia eta uhin etengabe horiei erreparatzeko eta hauetan jolasteko gaitasunari buruz baizik.



- Eta edonolako gaitasunekin gertatzen den bezala, entzuteak, entzuteko moduak alegia, anitzak eta desberdinak dira hala-beharrez. Badira entzute zuzenak, ertzekoak, transbertsalak, zeharkakoak, adituak, aktiboak, pasiboak, distraituak, adiberak, pasionalak, hotzak, isilak, zaratatsuak, beldurtuak eta beldur-gariak, opresiboak, aprensiboak... baita gorra ere. Bainan denak entzun daitezke. Moduak eta helburuak dira aldatzen direnak.
- Azken hamar urte hauen atzerabegirakoan egiterakoan zaila egiten zaigu hori baino definizio hoberik topatzea, guri, ERTZ egin dugunoi ERTZ izateak eman digun opari haundiaren deskribatzeko. Programatzialeak, antolatzialeak, kuradoreak, deitu nahi bezala, izan garen heinean, jaialdiak berak entzuten entzuteko aukera paregabea eskaini digu. Guk entzundakoak konpartitze-ko aukera, eta bertzeek entzundakoak guk entzuteko plazerra. Hortaz gure belarrietako argizarien DNA azterketa egiten hasiko bagina azken hamar urteotan ia denetarik entzuten ikasi (eta zergatik ez, ikusi) dugula ohartuko ginateke.
- Gogora datorzkigu Bernhard Günter (Graham Halliwell eta Mark Wastellekin +minus taldea sortuko zuen egun berean) Be-rako tabernetako eta karriketako musikak eta Bilboko aireportuko entzungailuak entzuten kexaka topatu genuenekoa, edo Llorenç Barberrek espreski Bera herriarentzako sortutako "Mundu guziak jakin dezala" obra azaltzerakoan (Xabier Iriondok "Sonar ciudas" filmean ederki erretratatu zuen bezala) marraztutako bere



entzumenaren mapa, alegia, bere entzutearen entztea. Edo Alex Mendizabal, Marcello Libertoak eta Marco Ieiek beraiek sorpresaz urazpian entzundakoak entzutera gonbidatu gintuztenekoak, eta (bere senitarteko ondradutasun eta eskuzabaltasunari esker) Stan Brakhagen filme mutuak entzun genituenekoak.

- Badira, noski, beraien entzumenak modu bortitzagoan azaldu dituztenak, beldurraren eta plazerraren arteko muga zorrotzeta gustura izaki, beraien entzumenaren zigilua gure gorputzean zizelkatu nahi izan balute bezala edo beraien entzumena ukitzera gonbidatu gaituztenak, halanola Mattin, Phill Niblock (bere gustuko 115dbak neurtzeko makina eta guzi), Xedh, Francisco Lopez, John Duncan, Akauazte, Toshimaru Nakamura eta Ignaz Schick, Evol...

- Eta azkenik bada bertze zerrenda luze bat, musika baino airea, haizearen poesia moduko hori, entzuten erakutsi digutenak, AMM, Alex Mendizabal, Alejandra & Aeron, AFRI Studios edo Orbes kasu. Hauez gain (eta zerrenda benetan luzea da) beraien entzumenak elkartrukatu nahiean hauek marraztu dituztenik ere ezagutu

dugu: Raimo Benedettiren begiekin, Juanjo Aranguren eta bere isiltasunaren entzumenen partiturekin edo Silvia Mestresen margoekin adibidez.


- Hartara, entzumenaren zirrikuetan galdurik (eta preso, baldin eta nondik begiratzen zaion), entzunlekuek, entzunpuntuek (ikuspuntu bezala), oihartzunek, bibrazioek eta orokorrean entzuteko modu horren molde gisara jokatzen duten espazioek berebiziko garrantzia hartu dute gure ikaspenean. Ondorioz, Berako lurrardeetako ohiartzunetan trabaturik gelditzetik urrutি, ERTZ mugikorra den zerbait bihurtu da hamar urteotan, berdin kultur etxearen, garai bateko hildegian, herriko frontoian, parkeetan, Altzateko elizan eta karrikan, Uxanen, herriko kanpaidorrean, tabernetan, igerilekuaren, Gure txokoa elkartean, Kaxernako gaztetxeen edo Lesakako plazan, Donostiako Artelekunahiz Tabakaleran, Azkoitiko Mata-deixen, Tolosako Bonberenean, Eromako eta Genzanoko karriketan eta lakuetan, Lazkaoko fraile etxearen edo Lucena nahiz Córdoban izan delako. Horrez gain [un]common sounds elkarlan egitasmoen irekitako leihoren bidez Argentinako Buenos Aires, Córdoba eta Rosario, Brasilgo São Paulon, Paraguayko Asunción hiriburuan, Montevideon, Liman, Atenasen, Alemaniako hainbat hiritan, Ekialdeko Timorrean eta bertze hainbat lekutan barna paseatu ditugu gure belarriak.

- Horrenbertze joanetorrikin ERTZ helmuga izatetik bide bihurtu da, soinuarekin gertatzen den bezala, mugimendu hutsa. Etengabe mugitzen den belarria etengabe mugitzen den hori entzun nahiean. ERTZ, zenbait artistek,

erromantikoegiak iruditzeko arriskuarekin, aire deitzen dioten horren antzeko zeozer bihurtu den arte.

- Topikozaleek euskaldunei entzuteko gaitasun eza bizkarreratzen digute. Entzutearen itxurak egiten omen ditugu, baina aitzinetik erantzuna zein izanen den jakiteak ematen duen ziurtasun gorrarekin. Eta topikoak hausteko daudenez, gure entzumenak eta entzuteak (euskladunak izan edo ez) elkartrukatzen jarraituko dugu, ertzetik, horixe baita ERTZek irakatsi diguna.

Traducción al castellano en página XXX.





Damo Suzuki &amp; Zu. Kultur Etxea, 2005.

## **Ertzak<sup>1</sup>**

*Jon Mantzisidor*

Ertz jaialdiaren 10 urteurrena dela eta,  
memorian arakatuz gogoratu naiz idatzi nuela  
textutxo bat aspaldi jaialdiari buruz. Garai  
hartan herri aldizkarian kolaboratzen nuen,

1.- Baleike zumaiako herri  
aldizkariaren 69. Alean argitaratua.  
2000 urteko ekainean

batez ere komikiak egiten baina baita kontzertu eta diskoen  
komentarioak egiten ere. Agian komikiak egitearen eraginez edo,  
musikari buruzko idatzietan ere txorakeria pila sartzen nituen,  
ikusiko duzuen bezala; orain lotsa ematen ematen didan arren  
modu sasi-literario horrek.

- Testua jaialdiaren lehen edizioari buruzkoa da. Orduan ez  
nuen ezagutzen gero pixkanaka ezagutu dudan jendea; musika  
mota honetan interesa zuen jende hori. Ertz jaialdian eta baita  
Xabi Erkiziak Artelekun antolaturiko tailerretan ezagutuko  
ginenak. Izenak aipatzea alferrik da, norbait ahazteko arriskua ere  
badago eta. Ikusle bezala joaten zen jende asko gainera, gehienak  
ez esatearren, musikariak ziren eta taula gainean ikusi ditugu  
urte hauetan zehar proiektu oso interesgarriekin eta ohiko  
moldeetatik aldentzen zen musika eginaz. HORTAN ERTZEK ETA  
Audiolabek garrantzi haundia izan dutela iruditzen zait, euskal  
herriko "eszena-txo" sortzerakoan.

- Testuan pare bat gauza aipatzen dira zeharka. Bat, jaialdia  
Beran egiteak suposatzen duena. Hau da, haraino desplazatzeak  
suposatzen duena ikusleontzat, Donostia edo Bilbo zentruetatik  
urrun, periferian.

- Eta alderantziz hartuta Ertzeko antolatzaleen meritua hain  
urruti antolaturiko zerbaitera jendea erakartza eta hamar urte  
luzetan irautea. Norbaitek esango du, urruti nondik? Arrazoi  
guztiarekin.



- Bestetik hor aipatzen den gauza bat dago,  
izatez txiste bat dena, soinuaren iraupenari  
buruzkoa. Gai horrek beranduago nire arreta  
erakarri du beste kontestu batean, baina hau  
agian hobe bukaeran komentatzen badugu.  
Beraz, hor doa testutxoa:
- Borobila da mundua; ez dauka ertzik.  
Borobila da eguzki sistema ere, han dago  
erdi-erdian eta gu inguruan bueltaka. Borobila  
da gure bizitza ere, ez dauka ertzik, ni nago  
zentoan, kotxea garajeant daukat eta Gran  
Hermano 10etan hasten da. Bainha aspaldiko  
aurpegi hura bapatean gogoratzen duzunean  
edo zure diapositiba kaxa guztiak begiratu eta  
guztietan haurren argazkiak bakarrik daudela  
konturatzan zarenean hor azaltzen dira  
ertzak. Eta ez duzu bila joan beharrik, bakarrik  
azalduko dira. Desplegatuko dira eta gero  
plegatuko dira berriro.
- Aspaldiko gizonak abiatzen ziren  
munduaren ertza bilatu nahian (mundua laua  
zenean gertatzen zen), ez dakigu ezer aurkituko  
zuten han urrutian, itsasoa urjauzi bihurtzen  
den lekuak, inor ez baitzen itzultzen. Gu ere,  
ausardia haudiz abiatu ginen duela 500 urte  
beste haien egin zuten bezala, eta bapatean,  
autopistako bigarren peaje pasata, han egin  
genuen topo ertzarekin.
- Kieto. Beran hain zuzen, Bidasoa ondoan.  
Han ostatukoak esan zigun: hori da sarrera  
literarioa egin duzuena musika jaaldi baten  
komentarioa egiteko. Eta guk: Bai, hala da.
- Hortaz, ekainaren hamarra zen: Alejandra  
& Underwood, Zulo Beltza, Amy Denio  
eta Francisco Lopez han ibili ziren zaratak  
ateratzen eta bere arrastoa uzten, makinekin,  
instrumentuekin, blisz eta krak. Jakina da



hala ere soinuaren izatea nahiko efimeroa dela (normalean soinu bat, adibidez txanpon batek lurraren kontra jotzean sortzen duena, ez da izaten segundu erdi bat baino luzeagoa asko jota), hori izan daiteke arrazoia gu Berara iritsi ginenerako Alejandra & Underwood eta abarren arrastorik ez aurkitzea, ez zen ezertxo ere entzuten. Kontutan hartuta 24 ordu beranduago heldu ginela, ba normala eritzi genion, oso bibrazio sendoa behar baitu soinu batek 24 orduren ostean gizakiaren belarri arruntak entzun ahal izateko.

• Hori zela eta momentu harten jotzen ari zirenak ikustera joan ginen, eta han zeuden Evol (elektronika), Voodoo Muzak (zuzeneko drum & bass edo), Un Caddie dans L'Herbe (elektronika) eta Ear-drum (afrikar perkusioa, jazza, elektronika), bakoitza bere eran musikaren ertzak arakatzen. Horrela ibili ziren goizaldeko hirurak arte. Gu, hau dena jakinik eta zeharo ahiturik, orain itzulerako bidean goaz; ea itzultzea lortzen dugun: gero ea norbaitek sinesten dizkigun periplo miresgarri honen pormenoreak.

• Sarreran aipatu dudan hortara bueltatuaz, soinuaren iraupenari buruzko zatira, ea honekin norbaitek laguntzen didan. Oinarria joan den urtean egunkari batean irakurritako artikulu batean du, non gizakiok munduan utziko dugun ondareari buruz hitzegiten zen. Hemendik milaka edo miloika urte barru ze arrasto utziko dugun lurrean. Suposatzen da gizakia jada desagertua egongo dela eta suteak, lehortea eta denetik pasa ondoren munduan, artikulu horren arabera, ez da ez piramiderik, ez Txinako harresirik geldituko; duna erraldoi batzuk bakarrak ibiliko dira batetik bestera desplazatzen. Duna hauek plastiko ondakinez osatuak egongo dira. Horrez gain gizakiok utziko dugun beste arrastoa, eta hau zen komentatu nahi nuena, soinu zatiak izango dira, edo onda elektromagnetikoak, artikulua ez nuen gorde eta ez nago ziur izen teknikoaz. Kantu zatiak, irratsaio zatiak eta telebista programa zatiak. Noraezean betirako hor bueltaka.

• Norbaitek entzun du honen berri? Dendarik gabe zientzia-fikzio itxura dauka, baina... Badu oinarri zientifikorik? Beno, hurrengo batean elkartzen garenean ea honi buruz hitzegiten dugun.





**Iñigo Ugarteburu** Recuerdo mi primer contacto con el festival como si fuese ayer. Ya han pasado nada menos que nueve años desde aquel importante día en mi andadura musical. Por aquel entonces vivía en Iruña, al igual que mi amigo y compañero en Café Teatro, Xabier Iriondo. Cogimos un autobús rumbo a Bera para encontrarnos con el resto de los cafeteros. Aquel día, esperábamos una llamada telefónica de una pequeña radio que nos entrevistaría pocas horas antes de nuestra actuación en el ERTZ. Una de las preguntas que recuerdo de aquella entrevista fue ¿Cuáles son vuestras expectativas en un festival centrado en "otras músicas" como es el ERTZ? La verdad es que por aquel entonces no conocía ninguno de los artistas con los que compartíamos cartel y mis expectativas no iban más allá de tocar para una nueva audiencia y disfrutar de propuestas sonoras que no había tenido la oportunidad de escuchar hasta entonces.

- El festival ERTZ del año 2001, me abrió las puertas a un mundo totalmente desconocido hasta entonces, y nuestro concierto, nos ayudó a que Stephan Krieger nos propusiese grabar y publicar nuestro primer disco con Amanita Records. Tras el último día de grabación en los estudios Amanita en Biarritz, camino a Zarautz, paramos en Bera para presenciar el concierto que cambió para siempre lo que yo entendía como música hasta ese día. El "culpable" no fue otro que el extraordinario Francisco López.
- Muchas son las memorias y recuerdos que corren por mi mente cuando pienso en el ERTZ y la gente, que año tras año, hacen posible que sus propuestas sigan enriqueciéndonos no sólo como músicos, sino como personas.
- En el 2010 he tenido la oportunidad de volver, junto a una banda de vientos formada por Hector Garrido, Ander Mujika e Iban Urizar, para presentar mi nuevo proyecto musical llamado iio. Esta vez, conocía a la gran mayoría de los artistas participantes (en algunos casos personalmente) y a un gran número de la gente que se acercó a la décima edición del festival. Esto se lo debo en gran medida al ERTZ y la familia de amigos que lo organiza. GRACIAS por todos estos años de talleres, instalaciones, conciertos y amistad!!! En especial a Asier Gogorta, Xabier Erkizia e Iñigo Telletxea.





1 Atekaleun. 2002 | 2 Zulo Beltza. 2000 | 3. Carlos Desastre. Kultur Etxea, 2000  
4 Aerospace Soundwise. Kultur Etxea, 2001. | 5. Antzerkiola Imaginarioa. Kultur Etxea, 2001.  
6 Diskono. Kultur Etxea, 2001.

1 Convolution. Kultur Etxea, 2001 | 2/3. Il Gran Teatro Amaro. Pui Ostatua, 2001.  
4. Charlemagne Palestine. Kultur Etxea, 2001 | 5. Laboratorio del Drama. Kultur Etxea, 2001.  
6 Pierre Bastien. Kultur Etxea, 2002 | 7. Fennesz. Kultur Etxea, 2001.



ERTZ

urgentzia  
gura ertza

Phonoa  
Phonemak

EEEEEEEEE -----> deia / gorraizea  
RRRRRRRRRRR -----> motorra  
TTTTTTTTTT -----> segun eta ze bokal tartekatzen diozun.  
A-kin: metrila. E-kin: boh,  
ez dakit zer den tetetete hori.  
I-kin: bular. O-kin: eman. U-kin: you.  
ZZZZZZZZZZZ -----> lo ta loak

morfematzen

ertz uxanen ote da

abi ertzeko bertze X gorgor zaren tellertzean herzkizauta  
aliment zabar 2009 Urria

b i z i t z a a l d a



Alex Mendizabal

## Ertzleihoa

Xabier Erkizia

Hasieratik Ertzleihoa esperimentatzeko grinaren emaitza moduko bat izan zen. Behin festibal edo jaialdi formatuaren nondik norakoak ezagututa (edo horren ustetan), ERTZ elkartearen parte ginenok gure eta bertze jendeen lanak bertzelako egoera batzuetan, bertze ikuspegi batetik aurkeztu ahal izateko ahalegina izan zen. Azken finean garai hartako gure jakinmin eta esperimentazio gosea asetzeko modu ireki eta ezberdin bat, jaialdiaren artista-entzule-ikusle erlazioa gainditu eta espazioarekin bertzelako harremanak probatzeko ariketa. Beraz, 2001ean, Josu Goia eskultore, idazle eta musikaria Berako alkate zela, herriko etxeko solairu guziak soinu eta irudiz betetzeko aukera izan genuen.

- Erronka honek guziz asebete ez eta 2002an gogortasun test bat bailitzan, 24 orduko etengabeko kontzertua antolatu genuen eta 20 musikarik baino gehiagok hartu zuten parte bertan. 2003an gure ohitura txarrei ohore eginez Berandu diskaliburua eta erakusketa antolatu genituen, 12 musikari eta 12 irudigile bilduz. Eta azkenik 2004ean, elkartearen estrenuaren 5. urteurrenean Huts (aka Pablo Lasa) artistari eman genion gure soinu artxibo guzia berak nahi bezala aurkezteko, nahasteko eta mugitzeko.
- Ertzleihoa erakutsi zigun nolabait espazio aunitzetan zehar mugitzen, baina baita espazio bakarrean mugimendua entzuten ere.



"Berandu". Kultur Etxea, 2003.

<< Curva Chiusa. Kultur Etxea. 2002.



*Desde el principio, Ertzleihoa (leihoa significa ventana en euskara) fue un resultado de la inquietud por experimentar. Una vez conocidas (o cuanto menos eso creímos) las características del formato festival, fue un intento de mostrar de otras formas y desde otras perspectivas los trabajos de la gente que formábamos la asociación ERTZ y otros invitados. Un ejercicio que nos sirvió para superar las relaciones establecidas entre artista oyente espectador y establecer nuevas relaciones con el espacio. A fin de cuentas, un modo de saciar nuestro hambre de experimentación y curiosidad de aquellos momentos. Por tanto, en el año 2001, con el escultor, escritor y músico Josu Goia ejerciendo de alcalde de Bera, llenamos literalmente todos los pisos del consistorio municipal con sonidos e imágenes.*

*• No contentos (aunque satisfechos) de aquella experiencia y casi a modo de test de dureza, en el año 2002 organizamos un concierto ininterrumpido de 24 horas, donde participaron más de 20 músicos. En el 2003 invitamos a 12 músicos y 12 creadores de imágenes para participar en el disco-libro y la posterior exposición móvil Berandu/Destempo, que hacía referencia a nuestras malas costumbres. Finalmente para la última edición de Ertzleihoa del 2004 celebrando el quinto aniversario del estreno de la asociación entregamos al artista Huts (también conocido como Pablo Lasa) todo el archivo sonoro compilado hasta la fecha para que lo presentara, mezclarla y moviera a su gusto.*

*• Ertzleihoa de alguna forma nos ha ayudado a aprender a movernos en varios lugares, pero también a escuchar el movimiento en un mismo lugar.*

ERTZ 24h. Kultur Etxea, 2002.



## **Ertzleihoa 2001**

*Asier Gogorta*

Udaletxea okupatu genuela oroitzen naiz.

Beheko arkueetatik hasi eta ganbararaino.  
Jendea eskaletan goiti eta beheiti ikusten ahal  
dut oraindik, kableak, panelak, kuboak, zernahi  
gauza eskutan hartuta.

• Oroitzen naiz bazirela bi tipo, bata Bartzelonakoa eta bertzea Zaragozakoa, zein baino zein harrikada haundiagoarekin. Bartzelonatik Berarainoko bidean dauden kasino guztietan gelditu omen ziren. Sos batzuk jokatu ondotik piszinara joaten ziren eta Jordik argazkiak egiten zituen bertan. Bertzeak testuak idazten zituen kasinoetan ezagutzen zituzten pertsonaien inguruan. Berara ailegatzean, Udaletxeko arkueen erdian paratu zuten kotxea, kotxe beltz deportibo horietako bat, eta inguruan atril batzuen gainean piszinetako argazkiak eta Ricardoren testuak.

• Gogoan dut pleno aretora goitzen diren eskaileretan argazki batzuk paratu nituela, eta eskaileretan bertan musika aditzen zela, baina ez dakit Etxegarena edo Erkiziarena ote zen. Nere lehendabiziko kamera iluna ere bertan egin nuen, plazara ematen zuen gela batean. Gela osoa ilundu ondotik gelako pareta guztiak paper fotosensiblez estali genituela akordatzen naiz, eta nola etzaten ginen buruz goiti autoak gelako paretetan projektaturik ikusteko. Joxan argazkiak errebelatzten laguntzen aritu zela oroitzen naiz, goizeko ordu ttikietan oraindik Herriko Etxean barna lanean ari ginela ere bai, eta gero polaroid hori dago, Mikel eta Itziar agertzen direna, argazkiak banan-banan beren tokian paratzen.

• Nekez ahaztuko zait Francisco Lopezek ganbaran egin ziguna. Begiak bendaz estali eta lurrean etzan ginen, egurrezko lurra zela oroitzen naiz, marroi eta leun-leuna. Kontzertua ikaragarria izan zen, Udaletxe guztia dardarka jarri zuen, eta bukatzean benda kendu eta oraindik erdi mareatuta ginela, burutan dut nola elkarrekin komentatzen aritu ginen teilatua gure gainera erortzeko beldurra izan genuela momenturen batean. Eta Tzokik erantzun zuena ere ez zait ahaztuko: "ez zen hiltzeko modu txarra".





## 2001

Instalazioak / *Instalaciones*  
Irailaren 20-21 *Septiembre*

Berako Herriko etxea  
*Ayuntamiento de Bera*

Xabier Erkizia  
Mikel Etxegarai  
Asier Gogortza  
Jordi Llorella  
Francisco López  
Ricardo Vicente



## 2002

24 ordu *24 horas*

Irailaren 21-22 *Septiembre*

Berako Kultur etxea

*Casa de cultura de Bera*

Borrokan

Gaizka Sarasola

Jon Irazoki

Iñaki Irazoki

Mattin

Do

Auzokoprexuk

Mikel Etxegarai

Soundcheck

Makala

Juego

Sergio

Tzesne

Tresenuno

Sinuose

Mikel Lertxundi

Maikel

Inaxio Agara

DJ Zülle

More

Peace Monkeys

Urjari

Enrike Hurtado

Xabier Erkizia

Lucky kitchen

Miguel N'Ohara

Asier Gogortza

Daniel Berasategi

Joxean Irazoki

Iban Urizar

Maria Irazoki

Iñaki Garmendia

Ima Morillas...



## 2003

Berandu/*Destiempo*

Azaroaren 27-30 *Noviembre*

Berako Kultur etxea

*Casa de cultura de Bera*

Jordi Bernadó

Anja Naumann

Jordi Llorella

Asier Larraza

Asier Gogortza

Xabier Ubeda

Mat Austin

Ima Paralux

Maria Irazoki

Iñaki Telletxea

Enaut Agirre

Fernan Irazoki

Mikel Irazoki

Soundcheck

Iñigo Telletxea

Beñardo Goietxe

Xabier Erkizia

Joseba Irazoki

Ibai Gogortza

Gaizka Sarasola

Maikel

Xabi Iturria

Ricardo Vicente



## 2004

5 urtek aunitzerako

Joel Stern

ematen dute...

Nishide Takehiro &

5 años dan para mucho...

Xabier Erkizia

Azaroaren 27-30 *Noviembre*

Ertzleihoa 2002:

Borrokan

Raimo benedetti & ertz

Person

Radian

Intricate

Soundcheck

DJ Cio

Irazoki

Huts aka Pablo Lasa

Telletxea

feat. Amy Denio

Urizar & Erkizia quartet

RAEO

Josh Abrams

Zulo beltza

Akauazte

Charlemagne Palestine

Ilios

Ertzleihoa 2001:

Television power electric 3

Elizak

Stan Brakhage

Tzesne



Han pasado 10 años.  
Hace 10 años ya.  
Si los pudiera vivir nuevamente.  
Volver a descubrir aquellos nuevos sonidos.  
Preguntarme otra vez, pero, ¿qué es esto?  
El vértigo del no-ritmo. ¿Qué hago yo ahora con mi cuerpo?  
No queda otra, hay que parar y mirar para adentro!  
Vaciar de sonidos  
el alma,  
el espacio,  
el tiempo,  
y aprender del arte de hacer ruido,  
o 4,33 qué más da, esto ya lo hicieron otros,  
prueba en 5,16.  
Pero al final, el silencio existe o no?  
No sé, creo que lo que realmente importa es el so-ni-do del silencio,  
(y te das cuenta cuando al fondo de la sala suena ese maldito móvil).  
Si los pudiera vivir de nuevo.

Porque yo era una de esas que nunca, nunca,  
iban a ninguna parte sin su compás de compasillo,  
1 - 2 - 3 - 4  
y mírame ahora, han pasado 10 años,  
cun-cun-cá  
y he aprendido a no dividir el tiempo

10 años,  
si estuviera allá de nuevo...  
pero, no no nono  
quiero estar aquí, en este momento,  
recapitulando y esperando  
11 12 13 14.....  
sin compás de compasillo,  
porque ya no tiene remedio,  
10 años me han convertido,


en una pe  
zzzzzzzzzz  
zz

*Ima Paralux*

*Miguel A. Garcia "Xedh"* Mi vínculo afectivo con Ertz es sinceramente grande, y profundo, por tanto que me ha aportado y, sobre todo, por tanto que ha sido capaz de generar. Admito que en los primeros años, aún teniendo mucho interés y disfrutando mucho, las propuestas me resultaban difíciles en su comprensión. Eso también me resultaba interesante, y colaboró un montón a que mis "orejas" se fueran haciendo más grandes. Por otras cosas, después desaparecí, sin que esas orejas dejaran de crecer. Mi reencuentro en los dos últimos años fue extraño por la mezcla entre la cierta nostalgia del tiempo transcurrido, y la conciencia de cuanto ha cambiado mi percepción.

- El tiempo transcurre sin vuelta atrás, de manera natural crecen semillas que quizás intuías que estabas ahí pero a las que todavía no habías prestado mucha atención. La atención es algo de lo que he aprendido mucho, pero de manera menos provocada que necesaria. Son indispensables lugares como Ertz para que este tipo de cosas puedan darse. La sensación de apertura centrada, que todas las muy diferentes energías confluyan, y juntas se genere algo tan único como diverso. Después de eso es inevitable empezar a oír de otra manera, o pensar de otra manera, o pensar oyendo, u oír pensando. Dicho como topicazo, despertar nuestra percepción, en este caso gracias a la oportunidad de una atención. Así que, por mi parte, muchas gracias.







## Ertz jaialdian egon nintzen larunbatean<sup>1</sup>

*Mikel Iturria*

1.- [www.eibar.org/blogak/iturri/  
archive/2005/06/13/128/](http://www.eibar.org/blogak/iturri/archive/2005/06/13/128/)

Ertz jaialdian egon nintzen larunbatean  
VI. edizioa bete du aurtengoarekin Beran egiten den  
Ertz jaialdiak. Ez nuen jaialdia ezagutzen eta bertara  
joan nintzen larunbatean. Beste musiken txokoa

da Ertz. Ez da erraza, zale gutxi baitago Euskal Herrian musikaren  
eremu esperimentalean dabilena. Hori bai, Berako tabernetan ere,  
bertze musika baino, futbola garaile, nahiz Osasunak partida galdu.

- Larunbatean lau emanaldi zeuden iragarrita. 22:00etan zen  
lehenengoa eta, beraz, 21:00etan taberna batean hartu genuen  
tokia bokata goxo batzuk jateko. Ordu horretan hasi zen Kopako  
finala eta gorritxoen zalez inguratuta afaldu genuen. Geunden  
tokitik ez zen pantaila ikusten. Eskerrak, zeren eta bestela ez  
niokoien begirik kenduko telebistari. Futbolaz jardun beharrean,  
musikaz-eta aritu ginен.

- Lesakako Gaizka Sarasola musikariak pitzu zuen gaueko  
sua, Xabier Iriondo jatorri euskalduneko italiarrarekin batera.  
Gaizka musika tradizionalaren esparruan mugitzen da eta  
ikuspegia berritzalea ematen saiatzen da. Iriondok Gaizkak txistu,  
danbor eta beste tresnekin sortutako soinuekin jokatu zuen,  
ordenagailua-eta erabiliz. Publikoaren arreta bereganatu zuten  
eta jendea adi egon zen, begira, entzuten. Ni ere bai.

- Emanaldia bukatu eta hurrengoa prestatu aurretik, zerbezaren  
bat hartzeko aukera zegoen behean dagoen erakusketa aretoan.  
Erakusketa aretoan Azkoitiko Matadeixerri buruzko erakusketa  
zuten paratuta. Ekitaldi mordoa antolatu dute azkoitiar zoro  
hauetan, Udalak zirkulaziotik kentzeko beldurra  
ezin uxatuz.

- Bonba izeneko herriko pertsonaiari Maxixatzen aldizkarian  
duela zenbait urte eginiko elkarrizketa zegoen irakurgai sarreratik  
gertu. Herriko pertsona (eta pertsonaia) berezia izan zen gizon  
hau. Demagun Azkoitiko Txantxillo zela.

<sup>1</sup> 1. Jason Kahn. Kultur Etxea, 2005. | 2. Gaizka Sarasola & Xabier Iriondo. Kultur Etxea, 2005.  
<sup>2</sup> 3. Thomas Charmettant & Eric La Casa. Kultur Etxea, 2005.

- Gauean, etxeratu ondoren, mesanotxetik Iñaki Segurola azpeitiaren "Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo" hartu nuen. Liburua ireki eta Bonbarri eginiko elkarritzeta hori aipatzen zuen orrialdearekin egin nuen topo kasualitatez. Ea elkarritzeta hori lortzen dudan nonbaitetik. Sarean ezinezkoia izango da, baina ea norbaitek laguntzen nauen.
- Bigarren emanaldia Astra bikotearen interbentzioa izan zen. Ilios, Bartzelonan bizi den greziarra, antikarrera musikala eginez dabil tinko. Ez dira nire hitzak, bereak baizik. Jason Kahn izan zuen bikotekide. Aretoaren erdialdean jarri ziren biak, ez eszenatoki gainean, ordenagailu banarekin. Eta soinufrekuentezkiekin jokatu zuten. Askok ez zuten aguantatu, baina, eta alde egin zuten.
- Esaten zuen ba hauetako beratar batek duela zenbait hilabete, kontzertu esperimentalaletan, sarrera baino, irteera kobrazu behar dela.
- Jarraituko du, zeren, bestela, luzeegia aterako zait-eta.



Zu. Pui Ostatua, 2004.

### Ertz jaialdian egon nintzen larunbatean (eta bi)

- Atzokoan idatzi bezala, Ertz jaialdian egon nintzen larunbatean. Pablo Lasa ere han zegoen. Eta bezperan aritu zen Oier Iruretagoiena "Tüsüri". Eta Zu taldea igo zen eszenatokira, Xabier Iriondo eta Damo Suzukiarekin batera. Zu ez dira euskaldunak, italiarrak baizik. Eta free-jazz egiten omen dute, baina larunbatean askoz gogorrago azaldu ziren. Eta musika entzuteko eta erosteko parada ere egon zen.
- Pablo Lasa Oarsoaldekoa da. Ez dut jarriko Erreenteria edo Lezo, zeren eta ez nago ziur. Musikaren jolasteko (edo aritzeko) software-a egina du gizonak. Eta ikusgai eta jolasgai egon da nahi zuen ororentzat. Ni ez nintzen hurbildu, baina pena dut orain, zeren eta seguru merezi zuela saiakerak. Hala ere, hemen duzue informazio gehiago.
- Oier Tüsüri gaztea hantxe zebilen, betiko martxan, esponja moduan: ikusten, entzuten, datuak prozesatzen. Sototik.com webgunean eskegi zuen artista bakoitzaren piezaren bat.



Tüsüri. Kultur Etxea, 2005.


• Zu taldea hiru lagunek osatzen dute: bateria, saxoa eta baxua. Bi lagun gehiago zeuden eszenatokian: Damo Suzuki abeslari japoniarra eta Xabier Iriondo gitarraz. Ordubeteko kontzertua eskaini zuten kaosetik gertu egon zena. Zaratatsua. Inoiz elkarrekin aritu gabea zen boskotea. Gustura geratu nintzen bukaeran. Inguruan zioten aurrekoan egon zirenean, hobeto aritu zirela. Erakusketa aretora jaitsi eta diskoak begiratzen egon nintzen. Zaila da horrelako musiketan oinarrizko bi ideia baino ez dituen pertsonarentzat aukera egitea. Azkenean, alde batetik bestera ibili ondoren, Café Teatro talde euskaldunaren azken lana eta Zu taldearen 2004ko beste bat erosi nituen.

• Laugarren emanaldira ez nintzen geratu. Eric de la Casa eta Thomas Charmettant. Goizeko 2:20ak inguruan hartu nuen autoa todo por la patri(k)a leloa sarrerako atean jarrita duen (zuen?) etxearen aurreko aparkalekutik. Irratia piztu eta orduan enteratu nintzen Osasunak 1-2 galdu zuela partida. Espero nuen halakorik, batez ere zarata handirik somatzen ez zelako Berako kaleetan. Hurrengo batean izango da.

• Futbolak merezi ez duenean, beti geratuko zaigu musika. Diot.



1. S.P.A.P.S. Arantzazu, 2005. | 2. Billy Bao. Hiltegi Zaharra, 2005.  
3. Alan Courtis. Hiltegi Zaharra, 2005.



1 1. John Duncan. Kultur Etxea, 2004. | 2. Sygtriggur Berg Sigmarsson. Kultur Etxea, 2004.  
2  
3 3. Keith Rowe & Toshimaru Nakamura. Kultur Etxea, 2004.

1 1. Oren Ambarchi. Kultur Etxea, 2002. | 2. DJ Amsia. Kultur Etxea, 2003.  
2  
3 3. Starfuckers. Kultur Etxea, 2003. | 4. Radian. Kultur Etxea, 2003.  
4  
5 5. Akauazazte. Kultur Etxea, 2002.



Toshimaru Nakamura. Kultur Etxea, 2004.

*I'm a person just like you*

**Lau hanka ta bost belarri**

*But I've got better things to do*

Eserita gauden aulkia hauek...

*Than sit around and fuck my head*

Guk geuk egin ditugu

*Hang out with the living dead*

Txorinoa kaiolan dago

*Snort white shit up my nose*

Bilintx txanpon batean

*Pass out at the shows Xalbadorren heriotza*

*That's something I **karagarria***

*I've got the Straight Ertz*

*zarata guzti hauek irentsi*

**Baina ez du**

**send RINGTON**

*gainezka egin go*

*to your cell*

**Historiak**

*smoke dope Cause*

*Zure irratian*

*I know I can COPE*

*Agur jauna agur*

*Always gonna keep in touch*

*Zuhaitz adaxka*

*Laugh at the thought*

*Oilaskoa patatakin*

*of eating in Lourdes*

**Txirritarekin** Amaitu zen

*Never want to use a crutch*

Oinarritzko nota eta bere bostekoa

*I've got the Straight Ertz*



## Memorias del borde

*Loty Negarti*

(1) Acababa de descubrir definitivamente la música hecha con cualquier cosa, metía sesiones largas en mi habitación con una mesa de mezclas, una minicadena vieja, varias pletinas de cassette y un viejo amplificador de guitarra. Me sentía muy a gusto, cómodo, y empezaba a conocer a ciertas personas con las que podía compartir esos ruidos (aunque fueran pocas y a veces los detestaran). Entonces oí hablar de un concierto ininterrumpido durante 24 horas, en Bera. Mis referencias a ese pueblo eran las típicas; frontera, contrabando, ventas, balcones con flores rojas, crímenes sin querer ser esclarecidos... y de pronto la música. Era extraño, un pueblo tan pequeño, fuera del radar de las modernas propuestas de las capitales candidatas a capitalidades. Y sin embargo parecía que allí, en los bordes del radar, se estaban proponiendo juegos potentes e interesantes, los que yo necesitaba en aquel preciso momento de cierta urgencia.

(4)

Acabé informándome del qué y el quién y desde entonces no he dejado de seguir las huellas de todo lo que ha ido ocurriendo. Creo que tardé un par de años en poder asistir al festival, y es curioso que tampoco sentía la necesidad de estar esos días allí, ya que para mí Ertz ha sido desde aquél primer descubrimiento, mucho más una plataforma activa durante el resto del año que un evento concentrado de una semana.


(6)

Al final, un tiempo después de rastros, de breves contactos, acabé por asistir al festival. Recuerdo esa experiencia de ir acercándote al pueblo por la antigua carretera, limando todo el tiempo ese borde-Bidasoa, siguiendo el río tan lleno de memoria, de tensión política

y militar, de accidentes. Pero aquella vez se trataba de arte, de música, de músicas. Este factor frontera, el sentimiento de control y de vigilancia de la zona me han parecido desde entonces muy estimulantes a la hora de estar ahí asistiendo a las invitaciones de un grupo de jóvenes artistas que regularmente nos han ido convocando en la periferia.

(7)

• Cuando alguien llega por vez primera a un espacio social nuevo se siente extraño. Es ley de vida. La extrañeza que he sentido yo en Ertz ha sido extraña a su vez. Me sentí ajeno pero invitado, extranjero pero local, con nombre propio y sin nombre. Y creo que esa es una de las señas de Ertz; una extraña familiaridad ajena, con reflejo en la gente, en los espacios, en el tiempo.





(11)

- Algunos festivales están super centrados en un tipo de música, o incluso en submúsicas: drone, noise, jazz... se supone que en la música experimental se buscan nuevos resultados, nuevas ideas, libertad. Se trata de experimentar para llegar a ver/oir cosas que no habrías podido vivir antes. Pero si te limitas necesariamente a un único "genero" entonces eres un especialista pero a costa de sacrificar esa experimentalidad. En Ertz he encontrado algo muy interesante en este sentido y es que hay una apertura a propuestas casi casi vengan de donde vengan. Hemos podido asistir a conciertos de rock, teatro, improv., noise, pop, y otras cosas sin nombre. Lo mismo ha ido ocurriendo con los espacios. La movilidad de los lugares (unos días aquí, después allí, este año allí no, pero sí aquí, etc.), el no estar atado a un único escenario, ha hecho que se haya guardado siempre un nivel de frescura muy estable.

(13)

- En los años que ha vivido Ertz como grupo y como festival hemos ido asistiendo también al crecimiento de muchas otras personas que han empezado a hacer músicas (y otras cosas). Yo he sido una de ellas, y en ese camino me he sentido al menos acompañado, me he sentido en un entorno de personas realmente adecuado para hacer músicas, aprender músicas, compartir músicas. Sin duda este grupo de personas y Ertz han producido retroalimentaciones mutuas, a modo de salpicaduras y contagios. Y esto es seguro lo más interesante de todo.

# Tot un poble

## **en moviment!**<sup>1</sup>

*el Belda*

1.- [http://blobs.mesvilaweb.cat/  
node/view/id/38519](http://blobs.mesvilaweb.cat/node/view/id/38519)


Fa uns mesos vem assitir amb el Pettan a un concert extraordinari.

- A Bera (Nafarroa-EH) hi fan un festival interessantíssim, l'ERTZ. De músiques arriscades. Mai no hi havia pogut anar i la presència d'un personatge que em tenia encuriosit desde feia temps va ser l'excusa perfecta per fer-ho. El gran concert final del certamen seria d'en Llorenç Barber. Un homenot d'Aielo de Malferit (la Vall d'Albaida).
- Ens vam acostar fins a la plaça de la vila. A la porxada de l'ajuntament hi estava fent experiments sonors un grup anomenat Borroka. El meu nano no es concentrava prou com per fer de públic i vam anar a tombar. Un jovenet ens va demanar si estàvem esperant per lo d'en Barber, li vam dir que sí i xerrant xerrant va resultar que era l'escolanet i que participaria en el concert desitjat. Ens va acompanyar al campanar i ens va mostrar el carrilló que més tard es faria servir, les partitures i els cronòmetres que servien per sincronitzar tots els intèrprets.
- Finalment va arribar el gran moment. En Xabier Erkizia, un músic-creadorimpulsor molt pregon, va presentar el compositor-director i el funcionament del recital. Sonarien les campanes de tres punts: l'església, un convent i l'ermita d'un barri, Altzate.



1. Josu Goia, Edorta Izarzuzaga, Iñigo Telletxea & Llorenç Barber. Kultur Etxea, 2006.

2/3/4. Llorenç Barber. San Esteban Eliza, 2006.



- La manera recomanada per gaudir de l'espectacle seria passejar amunt i avall pel carrer que unia aquest tres llocs. 3,21...0!
- Comencen a petar els esquellots i el públic ens anem escampant pel poble. I vinga a rumbejar cap aquí i cap allà. No us sabria dir si ens hi vam estar 10 minuts o una hora. El que si que us asseguro és que en vaig quedar molt afectat. Estava sonant un Poble! La gent voltava amatent, estava passant alguna cosa molt forta. Pel carrer hi havia assistents, vilatans, monges, turistes....i tothom erem públic! Magnífic, magnífic, magnífic!
- Vam tornar cap a casa molt contents. El nen encara recorda les campanades i jo encara estic paint-ho tot plegat (les sensacions, l'obra "e o concepto"). Mare de déu quin artista! Mare de déu quin país el nostre!
- Ara friso per retrobar-lo amb un recital de sirenes o canons.



## Bideoak / Videos

Ekitaldien erakutsitako lanak:  
Trabajos proyectados en eventos:

- Pieire (Francisco López, 1992)
- Qal'at Abd'al-Salam (Armando Benito & Klaus Schuwerk, Francisco López, 1993)
- Crustoceanium (Francisco López, 1993)
- Galatheanthemum Profundale (Francisco López, 1994)
- Katodiko II (Armando Benito, Francisco López, 1994)
- Trailer (Jorge Simonet, 1997)
- Los mandos no responden (Jorge Simonet, 1993)
- Untitled (Jorge Simonet, Francisco López, 1998)
- Sin título (Juanjo Aranguren, 2002)
- Villas Asoladas (Alejandra & Aeron, 2002)
- The Last drink (Kemen & Zuhatz, 2000)
- Galduta (Kemen Pumar, 2001)
- Colegas (Mateo Austin, 2001)
- Profussion (Mateo Austin, Mikel Etxegarai, Xabier Erkizia, 2001)
- Jib Socke (Peter Wobser, 2001)
- Acciones de video 1998-2002 (Juan Aizpitarte, 2002)
- Lil' Smacky (M.Blayney, 2001)
- The mind is a place in itself (Ray McEwan, 2001)
- The Death of a Quiet man (Joanna Gibbs, 2001)
- Monotema (Mateo Austin, 2002)
- Rastro (Raimo Benedetti, 2002)
- Amparo14 (Raimo Benedetti, 2002)
- COLAB (Raimo Benedetti, Franz Treichler, 2004)
- The Movement of People Working (Phill Niblock, 1985)
- Varios (Stan Brakhage)
- Varios (Marco Ieie)
- Film and sound performance by Bruce McClure
- Gurs. Drancy. Gare de Bobigny. Auschwitz. Birkenau. Chelmo-Kulmhof. Majdanek. Sobibor. Treblinka. (Sylvestre Gobart, Stéphane Garin, 2008)
- Subsonics (Allison Walls / Brendan Walls / Oren Ambarchi, 2004)
- Film & Sound performance: Tzesne & Paralux (2009)



1. Marco Ieie. Kultur Etxea, 2007 | 2. Phill Niblock. Kultur Etxea, 2006



**Trabajos audiovisuales producidos por y en ERTZ:  
ERTZek edo ERTZen ekoitzitako ikusentzunezko lanak:**

- Zulo Beltza  
(Jordi Llorella, Xabier Erkizia, Mikel Etxegarai, 2000)
- Travelling  
(Xabier Erkizia, 2001)
- Piscinas Climatizadas  
(Jordi Llorella, Xabier Erkizia, Mikel Etxegarai, 2001)
- Elizak, Errekak, Lainoak  
(Asier Gogortza, Xabier Erkizia, 2001)
- Atekaleun  
(Asier Gogortza, Xabier Erkizia, 2002)
- Grupo 22  
(Raimo Benedetti & Ertz, 2003)
- [un]common sounds  
(Xabier Erkizia, Dimitris Kariofilis, 2006)
- Messaggio fuora luogo  
(Xabier Erkizia, Iñigo Telletxea, 2007)
- Sonar Ciudades  
(Xabier Iriondo, 2007)
- Uxane film #1  
(Xabier Erkizia, 2007)
- Uxane film #2  
(Xabier Erkizia, 2008)
- Uxane film #3  
(Xabier Erkizia, 2009)
- ERTZ archive #1  
(Xabier Erkizia, 2009)

1 2 1. Piscinas Climatizadas, 2001 | 2. Travelling, 2001 | 3. Grupo 22, 2003  
3 4 4. Elizak, Errekak, Lainoak, 2001. | 5. Achim Wollscheid, [un]common sounds, 2006.  
5 6 6. Vicky Bennett, [un]common sounds, 2006 | 7,8. Uxane Film #1, 2007.



